

## Izurrite eta gaixotasunen aurka gehien erabilitako produktuak

Baratzea modu ekologikoan lantzen dugunean izurriterik eta gaixotasunik apenas izaten dugun arren, beharrezkoa da horiek kontrolpean izatea, gure barazkiak alferrik gal baitaitezke.

Ez dira asko gure baratzean arazoak sor ditzaketen izurriteak; beraz, ez ditugu produktu asko beharko kontrolpean edukitzeko. Hona hemen gehien erabilitakoen zerrenda:

**Xaboi potasikoa** Izurritea indartsuegia ez denean eraginkorra den intsektizida likidoa. Batik bat landare-zorriekin erabiltzen da. Uretan nahasten da eta landarea lainoztatzen; kontuan izan eraginkorra izan dadin intsektuak ondo busti behar direla. Ez badugu erosi nahi, gure etxeetan ohikoa den xaboi-pastilla ere erabil dezakegu. Bustigarri gisa ere erabiltzen da (lainoztatutako produktuak landareari hobeto itsasteko).

**Neem edo piretrina** Xaboi potasikoa baino intsektizida indartsuagoak dira. Izurriteari aurre egiteko xaboi potasikoa nahikoa ez denean erabili behar dira. Hauek ere uretan nahasten dira eta intsektuak dauden lekua lainoztatzen da.

**Bacillus thuringiensis** Bakteria hau edozein motako beldarrak hiltzeko erabiltzen da: aza-beldarra, tomateetan ateratzen den beldarra (kasu honetan, tomatearen lorea lainoztatzen da), patata-zomorroaren beldarra... Uretan nahastu beharreko hautsak dira. Asko erabiltzen den produktua da, oso espezifikoa baita; izan ere, ez du intsekturik hiltzen, soilik beldarrak. Gainera, landareari tratamendua eman eta egun berean jan dezakegu barazkia.

**Kobrea** Bordeles salda, Kobre sulfatoa... hainbat nahasketa dira, batik bat tomatearen edo patataren gorrinari aurre egiteko erabiltzen direnak. Kobrea, metal astuna denez, bai lurrarentzat bai landareentzat kaltegarria da; beraz, erabilitako kopurua kontrolatu beharko dugu.

**Fosfato ferrikoa** Bareen aurkakoa, ohiko nekazaritzan erabiltzen den metaldehidoaren ordez nekazaritza ekologikoan erabiltzen dena. Gainerako animalientzat ez da kaltegarria eta usteltzean burdina ematen dio lurrari.

## Los productos más utilizados para las plagas y enfermedades

Aunque cuando cultivamos una huerta en ecológico no solemos tener muchas plagas y enfermedades, es necesario tenerlas controladas, ya que si no, nos pueden echar a perder nuestras hortalizas.

No son muchas las plagas que nos pueden generar problemas en nuestra huerta, por tanto, no necesitaremos muchos productos diferentes para tenerlos controlados. He aquí un listado de los más utilizados:

**Jabón potásico** Insecticida líquido eficaz cuando la plaga no es muy fuerte. Sobre todo muy utilizado con los pulgones. Se diluye en agua y se pulveriza la planta, teniendo en cuenta que es importante mojar bien a los insectos para que sea eficaz. Si no queremos comprarlo, también podremos utilizar el jabón de pastilla que se ha utilizado siempre en nuestras casas. También se utiliza como mojante (para que los diferentes productos que pulvericemos, se adhieran mejor a las plantas).

**Neem o piretrina** Insecticidas más potentes que el jabón potásico. Se deben utilizar cuando la plaga es demasiado fuerte como para tratarla con jabón potásico. Son líquidos que se suelen diluir en agua y se pulveriza donde haya insectos.

**Bacillus thuringiensis** Es una bacteria utilizada para matar tipo de orugas: la oruga de la col, las orugas que salen en los tomates (en este caso se pulveriza la flor del tomate) ,la oruga del escarabajo de la patata... Son polvos que se diluyen en agua. Producto muy utilizado porque es muy específico, ya que no mata insectos, sólo orugas. Además, podremos comer la hortaliza el mismo día en el que hayamos tratado la planta.
























**Cobre** Caldo bordelés, sulfato de cobre... son diferentes mezclas utilizadas sobre todo para tratar el mildiu del tomate o la patata. El cobre, al ser un metal pesado, es perjudicial para el suelo como para las plantas, por lo que deberemos controlar la cantidad utilizada.

**Fosfato férrico** Anti-limacos utilizado en agricultura ecológica que sustituye al metaldehído utilizado en agricultura convencional. No es tóxico para otros animales y al descomponerse aporta hierro al suelo.

**[LISTA DE PRODUCTOS ECOLÓGICOS \(pulsa en la imagen para aumentar\)](#)**

# Baratzeaintza ekologikoan izurrite eta gaixotasunen aurka gehien erabilitako produktak

## Productos más utilizados en horticultura ecológica para control de plagas y enfermedades

BARATZEINTZA EKOLOGIKOAN IZURRITE ETA GAIXOTASUNEN AURKA GEHIEN ERABILITAKO PRODUKTUAK		MARKA KOMERTZIALAK ERABILIENAK	
ARAZO, IZURRI, GAITZAK	PRODUKTUA	MARCAS COMERCIALES MÁS UTILIZADAS	
PROBLEMAS, PLAGAS, ENFERMEDADES	PRODUCTO		
Bareak, barraskiloak Babosas, caracoles	Fosfato ferrikoa Fosfato férrico <b>(Kontuz: METALDEHIDOA ez da ekologikoa) / ¡Ojo! el METALDEHIDO no es ecológico)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ferramol (Neudorf)</li> <li>Antilimacos biológico (Compo)</li> <li>Natria-ferramol (Bayer)</li> </ul>	  
Landare-zorria, kotxinila, euli zuria, intsektu zulatzaileak Pulgón, mosca blanca, insectos chupadores	Xaboi potasikoa Jabón potásico Neem oiloa Aceite de neem Piretrina	<ul style="list-style-type: none"> <li>Insecticida-Acaricida Concentrado Spruzit (Neudorf)</li> <li>Insecticida-Acaricida RTU Spruzit (Neudorf)</li> <li>Triple acción (Flower)</li> <li>Insecticida ecológico (Flower)</li> <li>Insecticida acaricida Natria (Bayer)</li> <li>Insecticida triple acción (Asocoa)</li> </ul>	     
Beldarrak Orugas	Bacillus thuringiensis	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bacillus thuringiensis (Flower)</li> <li>Insecticida biológico (Compo natural)</li> <li>Insecticida biológico (Battle)</li> <li>Contra orugas y procesionaria del pino (Asocoa)</li> </ul>	   
Oidíoa Oídio	Azufrea Azufre	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azufre fungicida antioidio (Compo)</li> <li>Azufre sofrex (Flower)</li> <li>Natria – elosal (Bayer)</li> <li>Insecticida triple acción (Asocoa)</li> <li>Triple acción (Flower)</li> <li>Fungicida anthongos (Asocoa)</li> </ul>	     
Tomate eta patataren gorrina Mildiu del tomate y de la patata	Kobre sulfatua Sulfato de cobre Bordeles salda Caldo bordelés Kobre gatza Sal de cobre)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Fungicida biológico (battle)</li> <li>Sal de cobre (Flower)</li> <li>Cobre nordox (Massó)</li> <li>Cupertine Jed (Iqy)</li> </ul>	   

Zerrenda honen helburua ez da produktuak gomendatzea, produktu erabilienak azaltzea baizik – El objetivo de este listado no es recomendar productos, sino informar sobre los más utilizados.

